

## **K.- KUDEAKETA, DIRU-BILKETA, IKUSKARITZA ETA ZEHAPENERAKO UDAL-ORDENANTZA**

### **I. OINARRI OROKORRAK.**

#### **1. Artikulua. Ordenantzaren helburua.**

Ordenantza honen helburua da Urduñako Udalari dagozkion zerga eta zuzenbide publikoko gainontzeko diru-sarrerari lotutako kudeaketa-, bilketa-, zehapen- eta ikuskaritza-prozedurak arautzea.

#### **2. Artikulua. Lege-erregimena.**

Zergen zein bestelako zuzenbide publikoko diru-sarreraren kudeaketa, bilketa, zehapena eta ikuskaritza Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren arabera arautuko dira; dena dela, Tokiko Ogasunari buruzko Foru Arauak, zerga bakoitzari dagozkion Zerga-ordenantzek eta honako Udal-ordenantza honek ezarritako berezitasunak aintzat hartu beharko dira.

Arau horretan jasota ez dauden puntu guztietan, modu osagarrian, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren garapenean adierazitako lege-xedapenak aplikatuko dira.

#### **3. Artikulua. Erabilera-esparrua.**

1. Ordenantza honek Urduñako udalerrri osoan izango du eskumena indarrean sartzen denetik indargabetu edo aldatu arte.

2. Udalerritik kanpo egin beharreko ikuskaritzari edo exekuziozko diru-bilketari dagozkion ekintzen kasuan, udalerrriaren zuzenbide publikoko diru-sarrerari buruzkoak direnak, Udal honek burutu ahal izango ditu Bizkaiko Lurralde Historikoaren esparruan. Gainontzeko kasuetan, ezarritako edo ezar daitezkeen lankidetzako formulen arabera egingo da.

#### **4. Artikulua. Kudeaketa, Diru-bilketa, Ikuskaritza eta Zehapenerako Prozedura**

1. Udalak berak gauzatuko ditu zergen eta bestelako zuzenbide publikoko diru-sarreraren kudeaketa eta diru-bilketa eta, nahi izanez gero, beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun ahal izango du zerbitzuaren kalitatea hotzeko asmoz.

2. Kudeaketa, diru-bilketa, ikuskaritza eta zehapeneko arloetan jarduteko Alkatetzak eta Diruzaintzak honako eginkizun hauek beteko dituzte:



a) Alkatetza.

Honakoak dira alkatearen eginkizunak zuzenbide publikoko diru-sarrereren kudeaketan eta bilketan:

1. Entitate laguntzaile gisa baimena ematea.
2. Informazioa eskatzea, finketan edo lokaletan sartzeko baimena ematea, zuhurtasunezko neurriak hartzea.
3. Jenerotan ordaintzeari baiezkoa ematea.
4. Likidazioak onartu eta deuseztatzea.
5. Berraztertzeko helegiteak ebaztea.
6. Bidegabeko kobrantzen itzultzea ebaztea.
7. Onura fiskalen aitorpenerako eskariak ebaztea.
8. Bermearen onarpena ebaztea.
9. Bermeen gauzatzea ebaztea.
10. Onura fiskalak aitortzea.
11. Gerorapenak edo zatikapenak ebaztea.
12. Ofiziozko konpentsazioa erabakitzea.
13. Bahitutako ondasunak besterentzeari buruz ebaztea.

Eta oro har, legez beste organo batzuei ez dagozkien eginkizun guztiak.

Alkateak zinegotzien esku utzi ahal izango ditu egoki jotzen dituen eginkizun guztiak.

b) Diruzaintza.

Honakoak dira Diruzaintzaren eginkizunak zuzenbide publikoko diru-sarrereren bilketan:

1. Konpentsazio-ebazpenak proposatzea.
2. Hutseginak eta kreditu kobraezinak proposatzea.
3. Premiamenduzko probidentzia ematea.
4. Bahitura-probidentzia ematea.
5. Premiamenduzko probidentziari buruzko errekurtsoen ebazpenak proposatzea.
6. Espedienteen bajak proposatzea.
7. Bahitutako ondasunak gordetzeko tokia aukeratzea.
8. Kobrantzak burutzea.
9. Zerga-zorren ziurtagiariak ematea.

Eta oro har, bilketako prozeduraren zuzendaritzari dagokion guztia eta udaleko organo betearazleei ez dagokiena.

### **5. Artikulua. Zergadunari Arreta. Norberari buruzko informazioa.**

Zergadunek, NANA badaramate, edota titularrak baimendutako pertsonak Diru-bilketako sailean lortu ahal izango dute zergei buruzko informazioa baita sortzeari eta jakinarazteari nahiz Zergen Ordenantzei eta abarrei buruzkoa ere.

Halaber, zorrei buruzko informazioa nahiz egiaztagiria eskuratu ahal izango dituzte eta hauek bezalako izapideak egin ahal izango dituzte: zergak helbideratzea, ordainketa-modalitateak edota ordainketa-egiaztagirien kopiak.



Zergadunek Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eman behar dute. Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean adierazitakoaren arabera, ondasun-erkidegoek, jabeen erkidegoek eta jaso gabeko jarauntsiek ere betebeharrak hori daukate, baita nortasun juridikorik gabeko beste edozein entitatek ere, zerga-betebeharrak baldin baditu. Adingabekoek euren IFZ eduki ahal dute edota euren legezko ordezkariena. Era berean, atzerritarrek pasaporte edota egoitza-txartelaren bidez identifikatuko dira

## **6. Artikulua. Eraginkortasuna eta ekonomia zerga-prozeduran.**

Prozedura guztietan eraginkortasuna eta ekonomia lortze aldera, zerga-likidazioak nahiz premiamenduzko probidentziak ohiko postaz jakinaraziko dira, aldezturik jaso izanaren adierazpena eskatzen duen posta ziurtatuaren bidez abisua egin bada.

## **7. Artikulua. Zerga-egutegia.**

Bilketa Sailak proposatuta, alkateak zerga-egutegia onartuko du, bertan aldizkako epemuga duten zergen kobrantzarako datak agertuko dira.

Zerga-egutegia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitarako da eta egoki jotzen duten bideetatik zabalduko da. Era berean, udaleko web-orrian azalduko da.

Ondasun Higiezin gaineko Zerga eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kobratzeko datak Bizkaiko Foru Aldundiak zehaztuko ditu.

Ezohiko kasuetan, alkateak zerga-egutegian adierazitako epeak aldatu eta beste batzuk ezarri ahal izango ditu.

## **II. KUDEAKETA PROZEDURA.**

### **8. Artikulua. Gutxienerako zorra.**

Ez da ordainagiririk ez zerga-likidaziorik egingo zenbatekoa 5 € baino gutxiago bada.

### **9. Artikulua. Zerga-errolak.**

1. Zergapeko egitateak jarraitasuna badu, errolda bat sortuko da, interesdunen adierazpenak, Udalak dituen datuak eta ikuskaritzak aintzat hartuta. Zergadunek jakinarazi beharko dituzte altak, bajak edo aldaketak, gertatu eta 15 egun baldioduneko epean.

2. Erroldak alkatetzaren erabakiz onetsiko dira ekitaldi bakoitzean eta jendaurrean jarriko dira 15 egunez, zergadunek aztertu eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten, Foru Arauetan eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak arautzeko ordenantza espezifikoetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

3. Zerga-errolak onesten dituen Dekretuan azalduko dira zergen ordainketarako epeak eta erroldako tasa nahiz prezio publikoak eta aurrerapen nahikoarekin aditzera emango da egoki jotzen diren bideetan.



4. Borondatezko ordainketarako epea amaituta, ordainketarik egon ezean, aldi exekutiboa hasiko da.

#### **10. Artikulua. Salbuespenak eta hobariak.**

Urduñako Udalak berezko dituen zergei dagokienez hobari fiskalak eman ahal izango ditu eta bere aurrekontuaren gain hartu, gai horri dagozkion Foru Arauetan edota Tokiko Ordenantzan ezarritakoari jarraituz.

#### **11. Artikulua. Zerga bakoitzaren arautegitik sortutako itzulketak.**

Zerga-administrazioak bidezko zenbatekoak itzuliko ditu, zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoari jarraituz.

### **III. BILKETA-PROZEDURA.**

#### **A. ZORRA AZKENTZEA**

#### **12. Artikulua. Ordainketa egiteko legitimazioa.**

Ordainketa zerga-behartuak edo hirugarren batzuek egin dezakete eta horrela zorra azkenduko da. Horrek ez die hirugarrenei inolako eskubiderik emango Udalaren aurrean.

#### **13. Artikulua. Borondatezko ordainketarako tokia eta epealdia.**

##### **1. Autolikidazioak.**

Zergadunak Erakunde Laguntzaileen bidez egin beharko du ordainketa edo bestela aurreikusitako beste modu batzuk erabiliz. Bilketa-bulegoak dagokion ordainagiria emango dio, eta bertan artikulua honen 6.atalean adierazitako irautegitze-data azalduko da.

##### **2. Likidazioak.**

Ordainketa honako leku hauetan egin ahal izango da:

- a) Kreditu-erakunde Laguntzaileetan.
- b) Bideragarria izanez gero, teknologia berrien bidez.

3. Erakunde Laguntzaileek, inola ere udaleko bilketa-bulegoko organotzat joko ez direnek, balioetsiko dute egindako ordainketa dagokion agirian eta horrek aske utziko du zergaduna betebeharrak horretatik.

4. Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak zehazten du borondatezko ordainketarako epealdia. Aldizkako epemuga eta talde-jakinazpena duten ordainagiriaren kasuan, ordaintzeko epea ekitaldiko zerga-egutegiak zehazten du.

5. Autolikidazioen ordainketarako epealdia hamar egunekoa da, zergari dagokion



ordenantza arautzaileak besterik zehaztu ezean.

6. Zorra ordaintzen duenak ordainketaren egiaztagiaria lortzeko eskubidea dauka.

#### **14. Artikulua. Ordainbideak.**

Ordainketa esku-dirutan egingo da eta honako bide hauek onartuko dira: legezko dirua, Udalaren aldeko bankuko txekea edota taloi adostua eta nominatiboa, Udalaren kontu korrontean dirua sartzea, kontuan egindako kargu-agindua, posta bidezko igorpena.

#### **15. Artikulua. Kobrantza-agiria.**

Ordainketa egiteko dagokion kobrantza-agiria aurkeztu behar da eta bertan subjektu pasiboaren zein zerga-likidazioaren ezinbesteko identifikazio-datuak azalduko dira.

Agiri hori, Kreditu-erakundeak balioetsita, ordainketaren egiaztagiaria izango da.

Kobrantza-agiria jaso ezean edota behin jasota galtzen bada, udaleko Bilketa-bulegoak kopia bat emango dio doakionari.

Kobrantza-agiria ez jasotzea, likidazioa lege-betekizunen arabera jakinarazi bada edota aldizkako errolda batekoa bada, ezin da aitzakia izan zehaztutako epean ordainketa ez egiteko.

#### **16. Artikulua. Bankuko helbideraketa.**

Edozein zorren ordainketa helbideratu ahal izango da, betiere borondatezko epealdi barruan baldin badago. Eskaerak jasota geratzen den edozein bideren bitartez egin daitezke: inprimaki normalizatua, faxa, idazkia edota posta elektronikoko mezua.

Helbideraketan balio-epea mugagabea da, zergadunak baliogabetu edo aldatzen duen arte. Hala ere, ofizioz baliogabetuko dira zergadunak aginduta, kontu-zenbakia okerra izateagatik edota saldo nahikorik ez edukitzeagatik itzultzen direnak.

Udal-administrazioaren ez diren arrazoiengatik helbideratutako ordainagiria itzultzen bada, ohiko postaz bidaliko da gutun bat bankuak adierazitako arrazoia azaltzeko eta borondatezko epealdia amaituta, betearazteko epea hasiko da; zorraren zenbatekoari %5eko gainordain exekutiboa gehituko zaio orduan. Gainordain hori ez da eskatuko itzulketa Administrazioaren arrazoiengatik gertatzen bada. Zorra ordaindu ezean, premiamenduzko prozedurari ekingo zaio.

Helbideraketak kudeatzen dituen finantza-erakundeak bidaliko dio zergadunari ordainketaren egiaztagiaria eta bertan azalduko dira zergadunaren zein zerga-likidazioaren identifikazio-datuak, udaleko Bilketa-bulegoak emanda. Norberarenak diren datu horiek legeak babesten ditu eta ezin dira beste erabilera batzuetarako erabili ez eman.



## **17. Artikulua. Diru-sarrera bikoiztuen itzulketa**

Diru-sarrera bikoiztuen itzulketa ofizioz edota interesdunak eskatuta hasten da. Interesdunak idatziz egin behar du eskaera eta justifikatzeko agiriak aurkeztu behar ditu.

Bilketa-bulegoak egin behar du diru-sarrera horien itzulketa-espeditentea, Alkatetzadekretuaren bidez ebatzia izango dena.

Diru-sarreraren itzulketa bankuko transferentziaren bidez egingo da, bai betebeharpekoaren kontu korrontera bai horrek berariaz eta idazki batean adierazitako beste edozein kontutara.

## **B. GERORAPENA ETA ZATIKAPENA**

### **18. Artikulua. Gerorapena eta zatikapena**

1. Betebeharpekoak eskatuta, Udalak zorren ordainketa geroratu edo zatikatu ahal izango du, borondatezko ordainketarako epean nahiz betearazteko epean, Ordenantza Orokor honetan jasotako baldintzak betetzen badira.

2. Gerorapen- edota zatikapen-eskabideak Udaleko Bilketa-sailera zuzenduko dira eta honakoak agertu beharko dira eskabideotan:

- a) Eskatzailearen izen-abizenak, sozietatearen izena, identifikazio fiskalerako zenbakia (edo NANA) eta helbidea.
- b) Geroratzeko edota zatikatze eskatutako zorraren identifikazioa.
- c) Eskatutako epeak.
- d) Gerorapena eskatzeko arrazoiak eta nahi izanez gero, egoki jotzen dituen agiriak edota ziurtagiriak eskabidea laguntzeko.

Behar besteko agiriak aurkeztu ezean, eskatzaileari jakinaraziko zaio eta hamar eguneko epean gora-behera hori konpondu beharko du. Horrela egin ezean eskabidea ez da aintzat hartuko.

3. Emateko irizpideak:

- 600 € baino gutxiagoko zorrak.....gehienez 3 hilabete.
- 2000 € baino gutxiagoko zorrak.....gehienez 6 hilabete.
- 2.000 € eta 6.000 € arteko zorrak.....12 hilabete bete arte.
- 6.000 € baino gehiagoko zorrak.....18 hilabete bete arte.

Ebazpena alkateari dagokio.

Oro har 150 € baino gutxiagoko zorretan ez da onartuko ez gerorapenik ez zatikapenik, egoera bereziak izan ezean.

## **19. Artikulua. Zorren konpentsazioa.**

Bilketa-kudeaketan dauden Udalaren aldeko zorrak konpentsatu ahal izango dira, borondatezko zein betearazteko epean, zordunaren aldeko aitortutako obligazioen bidez.

Zorrak borondatezko epean egonez gero, konpentsazioa zordunak eskatuta egingo da. Betearazteko epean egonez gero, ofizioz egingo da konpentsazioa.

Kasu biotan, konpentsazioa ebatziko da Alkatetza-dekretuaren bidez eta zordunari jakinaraziko zaio.

Konpentsaziotik kanpo geratuko dira: borondatezko epean geroratzeko edota zatikatzeko eskatutako zorrak, konpentsazio-proposamena baino lehen endosatutako obligazioak, giza-laguntzak eta langileen ordainsariak (hala ere, bahigarriak izan ahal izango dira ezarritako prozedurari jarraituz).

## **20. Artikulua. Zorren metaketa eta ordainketen egozpena.**

Derrigorrezko egitetarako eta ofiziozko konpentsazioetarako, behin premiamenduzko probidentziak jakinarazita eta ordainketa-hilabetea igarota, zergadunaren zorrak espediente bakar batean biltzen dira.

Premiamenduzko prozeduraren edozein unetan zordunak zorra edo zorraren zati bat ordaintzea erabakitzen duenean ordainketa onartuko da eta zordunak zehazten duen zorrari egotziko zaio. Zorra guztiz kitatu ezean, prozedurak jarraituko du ordaindugabeko zatia dela eta.

Hala ere, kobrantza derrigorrezko egitearen bidez egiten denean, zerga-zorra guztiz kitatu ezean, preskribatu gabe dauden zor zaharrenei egotziko zaie eta, edozelan ere, Tokiko Ogasunaren interesak ondoen babesten dituen irizpideari jarraituz.

## **21. Artikulua. Berandutze-interesak.**

1. Honako hauen ondorioz eskatuko zaie betebeharrakoei eta arau-hausleei berandutze-interesa:

- a) Ordainketa epe barruan egiten ez badute.
- b) Bidegabeko itzulketa bat kobratzen badute.
- c) Zorren ordainketaren gerorapena edo zatikapena.
- d) Zergei buruzko araudian eta indarrean dauden aurrekontu-xedapenetan jasotako gainontzeko kasuetan.

2. Berandutze-interesa berau eskatu ahal den aldian diruaren legezkoa gehi % 25 izango da, besterik ezarri ezean.

Zergazkoak ez diren zorrei diruaren legezko interesa aplikatuko zaie.



## **C. HUTSEGINAK ETA KREDITU KOBRAEZINAK**

### **22. Artikulua. Hutseginak:**

1. Hutseginak dira kaudimen-gabezia egiaztatuagatik zorra kitatu ezin duten betebeharrekoak.

### **23. Artikulua. Kreditu kobraezinak:**

1. Zordun nagusia eta bere erantzule solidario eta subsidiario guztiak hutsegintzat aitortuta, kreditua kobraezintzat joko da.

2. Prozeduraren legezkotasun-printzipioarekiko errespetua administrazio-eraginkortasunarekin uztartzeko asmoz, kreditu kobraezinak proposatu baino lehen egiaztatu beharreko baldintzak eta betebeharrak ezarriko dira.

Egiaztagiriak desberdinak izango dira zorraren zenbatekoen eta ezaugarrien arabera. Honako kasu hauek bereizi ahal dira:

#### **a. 50 €-tik beherako zorren espedienteak**

1. Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunari edozein modutan lotuta dauden helbide guztietara eta iragarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2. Finantza-entitateetako funtsak bahitzen saiatzea eta emaitza negatiboa edukitzea.

#### **b. 50 eta 500 € arteko zorren espedienteak**

1. Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunari edozein modutan lotuta dauden helbide guztietara eta iragarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2. Finantza-entitateetako funtsak bahitzen saiatzea eta emaitza negatiboa edukitzea.

3. Ordainsariak eta pentsioak bahitzen saiatzea eta emaitza negatiboa edukitzea.

#### **c. 500 € eta 3000 € arteko zorren espedienteak**

1. Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunari edozein modutan lotuta dauden helbide guztietara eta iragarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2. Finantza-entitateetako funtsak bahitzen saiatzea eta emaitza negatiboa edukitzea.

3. Ordainsariak eta pentsioak bahitzen saiatzea eta emaitza negatiboa edukitzea.





4. Jabetza Erregistroan edo beste edozein erregistro publikotan zordunaren izenean ondasunik ez dagoela ziurtatzea.

d. 3.000 €-tik gorako zorren espedienteak

1. Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunari edozein modutan lotuta dauden helbide guztietara eta iragarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2. Finantza-entitateetako funtsak bahitzen saiatzea eta emaitza negatiboa edukitzea.

3. Ordainsariak eta pentsioak bahitzen saiatzea eta emaitza negatiboa edukitzea.

4. Jabetza Erregistroan edo beste edozein erregistro publikotan zordunaren izenean ondasunik ez dagoela ziurtatzea.

5. Zorra urtebetez kobratu ezinean betearazteko aldian egon dela ziurtatzen duen txostena.

## **D. BETEARAZTEKO EPEA ETA PREMIAMENDUZKO PROZEDURA**

### **24. Artikulua. Betearazteko epearen hasiera.**

1. Betearazteko epea zuzenean hasiko da borondatezko ordainketarako epea amaitu bezain laster eta %5eko gainordain exekutiboa zein berandutze-interesak dakartzan berekin, premiamenduzko prozedura ematen denetik zorraren ordainketarako ematen den epea bukatu arteko aldia - hilabete bat - izan ezik.

2. Borondatezko ordainketarako epetik kanpo ordaindutakoa zerga-zorraren ordainketen kontura zenbatuko da, betearazteko epean sartuta, eta proportzionalki banatuko da printzipalaren, gainordainaren eta berandutze-interesaren artean eta gainontzekoa premiamenduzko bidea erabiliz eskatuko da.

### **25. Artikulua. Premiamenduzko prozedura.**

1. Udaleko Bilketa-bulegoak aldia behin osatzen ditu borondatezko epean ordaindu gabeko espedienteen zerrendak. Zerrenda horiek oinarri hartuta, udal-diruzainak premiamenduzko probidentziak ematen ditu.

2. Premiamenduzko probidentzia legezko jakinarazpen baten bidez helarazi behar zaio zordunari. Jakinarazten den unetik hilabeteko epea dago zerga-zorra ordaintzeko, %5eko gainordaina gehituta baita borondatezko epearen amaieratik premiamenduzko probidentzia onesten den arte likidatutako berandutze-interesak ere.

#### **IV. IKUSKATZEKO PROZEDURA.**

##### **26. Artikulua. Zerga-ikuskaritza.**

Zerga-ikuskaritza Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Araudia onesten duen Foru Dekretuan eta gainerako xedapen osagarrietan zein ordezten dituen araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

#### **V. PRESKRIPZIOA ETA IRAUNGIPENA**

##### **27. Artikulua. Printzipio orokorrak.**

1. Udal honek zerga-zorra zehazteko duen ahalmena preskribatu eta iraungi egingo da. Preskripzioa eta iraungipena batera gertatuko dira; beraz, horietako bat gertatuz gero, ezingo da gauzatu administrazioak likidazioaren bidez zerga-zorra zehazteko duen ahalmena. Preskripzioa gertatuko da zerga-aitorpena aurkezteko epea amaitu eta lau urtera.

2. Likidatutako eta autolikidatutako zorren ordainketa eskatzeko Administrazioak duen administrazio-ahalmena preskribatu egingo da; era berean, betebeharpekoek zuzenbide publikoko diru-sarrerei buruzko arauetatik sortutako itzulketak, bidegabeko diru-sarreraren itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketak eskuratzeko duten eskubidea preskribatu egingo da. Kasu horretan, borondatezko ordainketarako epea amaitu eta lau urtera gertatuko da preskripzioa.

#### **VI. ADMINISTRAZIO-BIDEKO BERRIKUSPENA.**

##### **28. Artikulua. Baliogabetzea.**

Zerga-administrazioak honako egoera hauetan baliogabetu ahal izango ditu bere egintzak interesdunen mesederako: zuzenbide-ordenamendua nabarmenki hausten dutenean, zuzenbide-egoera zehatz batean eragina duten inguruabarrek egintza bidegabea dela agerian uzten dutenean, edota prozedura bideratzean interesdunen defentsa-gabezia gertatu denean. Baliogabetzea ofizioz egingo da beti.

Diruzainak proposatuta, Alkatetza-dekretuaren bidez baliogabetuko dira lehenago aipatutako akatsak dituzten zerga-likidazioak, prezio publikoko likidazioak eta aldizkako ordainagiriak.

Era berean, diruzainak premiamenduzko probidentzia baliogabetu ahal du akatsik aurkituz gero, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak ezartzen duenaren arabera.

##### **29. Artikulua. Berraztertze helegitea.**

1. Tokian tokiko zergen eta zuzenbide publikoko gainontzeko diru-sarreraren ezarpenari eta eraginkortasunari buruzko egintzen aurka berraztertze helegitea jartzeak ez du



etengo inpugnatutako egintzaren betearazpena. Hori dela eta, dagozkion legezko ondorioak gertatuko dira, likidatutako kuota edo eskubideen bilketa, interesak, gainordainak eta zehapenak barne.

Alderdi batek eskatuta, inpugnatutako egintzaren betearazpena eten egingo da:

- a) Bermea izanda: 5.000 €-tik gorako zorrak.
- b) Bermerik gabe: 5.000 €-tik beherako zorrak.

Kasu biotan berandutze-interesak kobratuko dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrari jarraituz.

2. Zerga-zehapenak ezartzeko egintzak zuzenean etengo dira berraztertzeke helegitea aurkeztean.

3. Berraztertzeke helegitea aurkezteko epea hilabetekoa da, berraztertzeke eskatzen den egintzaren berariazko jakinarazpenaren dataren biharamunetik edota zergadunen zein ordainketarako betebeharrekoen erroldak jendaurrean erakusteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

### **30. Artikulua. Premiamenduzko probidentziaren aurkako helegiteak.**

Premiamenduzko probidentziari honako arrazoi hauengatik bakarrik egin dakioke aurka: zorra ordaintzea zein iraungitzea; borondatezko epe barruan helbideratutako ordainketa eskatzea, bilketa arduratu ez bada; borondatezko epean geroratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskatzea; ordainketa eskatzeko eskubidea preskribatzea; likidazioa ez jakinaraztea, likidazioa baliogabetzea; premiamenduzko probidentzian zorduna nahiz zorra identifikatzea eragozten duen akatsa egotea.

Premiamenduzko probidentziaren aurkako helegiteak udaleko diruzainari zuzenduko zaizkio; diruzainak, beharrezko txostenetan oinarrituta, ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpena behar bezala jakinaraziko da.

Premiamenduzko probidentziaren aurkako helegitea aurkeztu zenetik hiru hilabete igarota eta ebazpenik egon ezean, gaitzetsizat joko da eta administrazioarekiko auziko bidea zabalduko da.

Helegitearen ebazpenak premiamenduzko probidentzia baliogabetzea ekarri gero, eta bidegabe kobratutako gainordainak zein interesak itzuli behar izanez gero, Alkatetzadekretuaren bidez onetsiko da itzulketa eta udalaren interbentzioa fiskalizatuko da.

### **31. Artikulua. Prozedura ofizioz baliogabetzea.**

Udalak ofizioz baliogabetuko du Kudeaketa- eta Bilketa-prozedura likidazioan, aldizkako ordainagirian nahiz erroldan izatezko akatsak zein akats materialak aurkitzen diren kasuetan; horretarako formulario normaldua erabiliko da.



## **VII. ZEHAPEN ERREGIMENA.**

### **32. Artikulua. Zehatzeko ahalmena.**

Zehatzeko prozedura Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Zehapeneko Araudian eta gainerako xedapen osagarrietan nahiz ordezkatzan dituen araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

#### **AZKEN XEDAPENA:**

#### **INDARREAN SARTZEA:**

Ordenantza honen aldaketak eragina izango du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta indarrean egongo da aldatzea edota indargabetzea erabakitzen den arte.